

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Irailak 28, 78. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ARTE EGUNAK



HOTZ - BERO

zibro
KAMIN TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE



ARRASATEko UDALA

Hotz komertzial eta industrialari buruzko ikastaroa

Edukina: Zirkuito Hozkarria, Hozte Planta, Motoreen azterlana, Hotzari buruzko sarrera, Izozkailu Kutxen muntaia, Konpresoreak, Kondentsadoreak, Prebentziorako Mantenimendua, etab.

Hartzaileak: Prestakuntza desegokia edota nahikoa ez duten 18 urtetik gorako langabetuak.

Zentroa: M.C.M.eko Pabiloi Industrialia (Nafarroa Etorbidea)

Plazak: 15

Izen Ematea eta matrikulak: 1990eko urriaren 5a

Hasiera: 1990eko urriaren 15a

Amaiera: 1991ko maiatzaren 31

Ordutegia: arratsaldeko 2.30etatik 6etara

Iraupena: 535 ordu

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

Arrasateko Udala, Enplegu Dinamizatzailea. Tfnoa: 79 09 00 edo Deba Garaiko Udaletxeetan, Enplegu Dinamizatzaileen bidez.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martín Elexpuru, Eukeni Obarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategiak:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Izozkiak

Izozkiak biziki atsegin ditut. Nire lagunek badakite, etxera datozela, zer ekarri behar didaten... Kafe, bainilla nahiz txokolatzekoak: denak ditut gustoko. Jeneralean gainezka zaizkidan hiruzpalau kiloak, dudarik gabe, izozkiei zor dizkiet. Nekez galdu ahalko ditut, nire bizio bakarrenetako bati uko egitea suposatuko bait luke... eta ez nago prest. Ezin dut bertan behera utzi nire gogoetako gauean galtzen den zaletasun goxoa.

Nire antzera, Jenofonte eta Alejandro Nagusia ere izozkien sare gupidagabeko prisionariak izan ziren, idazki zaharretan irakur daitekeenez. Baina siziliarrak ditugu, izotzaren aukerak aprobeztatuz, izozkiaren gertuketa ia-ia arte mailaraino jaso zutenak. Catalina de Medecisek eman omen zion izozkiari nazioartekotasunaren grazia, haren kontsumoa lehendabizi Frantzia eta gero Suitza eta Alemaniara hedatuz.

Nire kasuan, ez dakit zein izan nuen lehenago: Teodoro ala etxeko izozkigailua. Teodoro, nire haurtzaroko ume guztiok ezagutu genuen izozki-saltzailea zen. Bere besoen indarrez mugitzen zuen gurditxoaren zain egoten ginen neska- mutikook Herriko Plazan, esku-ahurrean txanpon guztiahaldunaz. Bere xaka zuriz

jantzita, Teodoro gure haur-uda haietako pertsonaia zen. Nola ezabatuko da nire oroitzapenetatik, hain une ederrak ahalbideratu zizkigun aguretxoa? Etxeko izozkigailuaren irudia aienatuko ez den arrazoi berberaz.

Elmako fundatzaileetariko baten biloba izateak abantailaren bat izan behar zuen eta, nire kasuan, zurezko tramankulu zilindriko hura zen. Tramankulu majikoa, haur-adimenaren arauera, ez bait zen txantxetakoia erdiko ontzi metalikoan natilla ipini eta, alehop!, izozkia ateratzea (Beranduago jakin nuen majiaren izkutua, inbento haren manibelari ordu luzez eragin beharrean zetzala).

Urteak pasata, Arrasaten izozkigile onak genituen arren, desietan egoten nintzen Gasteizera joateko; han, besteak beste, *La Suiza* eta *La Italiana* genituen gailen gailenekoak eta -behin baino gehiagotan- Ramiro de Maeztu Institutuan jasandako porrotaren ondoren, izozkidenda haietako batean erositakoak kendu zidan ahoko gustu txarra.

Toffe, pistatxo, karamelo...; badakizu, irakurle, denak ditut atsegin.

Jose Mari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagaritza erusea - 1/777054 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

Arrasate eta Zuberoa hurbilago

Pentsatuta zegoen bezala, aurreko larunbatean, irailak 8, "Abadia Urrustoi" izeneko Pastoralara antzetzuzen Arrasaten. Ekimen kultural honen antolatzaileok, ohar honen bidez, balorazio txiki bat egin nahi dugu.

Lehenik eta behin, esan beharra daukagu pozik gaudela eta balorazio oso positiboa egiten dugula. Ia bi mila pertsonak, hauekariko asko arrasatearrak, adi-adi jarraitu zuten ia lau ordu iraun zuen Pastoralara, Jean Louirs Davant-ek, pastoralaren idazleak, zera esaten zigun emanaldia bukatu ondoren. "Oso ona, oso publiko ona, Arrasatekoa. Obra jarraitu eta ulertu egin du", bere poza adieraziz.

Egia da, bestalde, Monterronen jende gehiago sartzea posible zela, ez zela jendetza handirik etorri kanpotik, baina, hala ere, bildutakoak asko izan ginen eta garrantzitsuen dena, jaso ditugun komentarioengatik, joandako gehienok harriturik eta oso pozik ateratu omen ginen.

Antolatzaileok bere eskerrik zintzoena eman nahi diegu arrasatearrei, alde batetik Pastoralari emandako erantzunengatik eta, bestalde, antolatze lanetan izan ditugun laguntza eta erreztasunengatik. Askok izan dira bere laguntza eman diguten pertsona eta taldeak, inor ez ahazteko izenik aipatuko ez badugu ere, publikoki eman nahi dizkiogu eskerrak SUDC Batzordeari eta, bereziki, Alkartu Elkarteko kideei, bildutako "tropa" handiari hain ondo "gobernetzea" lortu zutelako.

Bukatzeko, zera adierazi nahi dugu, Pastoralara Arrasaten antzetzeta ekimen polit eta aberatsa izan da, baina bada besterik ere, halako saioekin hobeto elkar ezagutzeko aukera dugu mugaren bi aldeetako euskaldunok eta bildurrik gabe baieztatzen dugu, 1990.eko irailaren 8tik aurrera, Zuberoa eta Arrasate hurbilago daudela. Jarrai dezagun bide honetatik!

Pastoralaren batzorde antolatzailea

Sebero, goizetan

Polita da Mondragoeko alde zaharreko kaleetan zehar ibiltzea egunsentiaren aurreko orduetan. Apenas dago trafikorik, zaratarik ez, ezta kerik ere. Askok jota Udalaren kamioi zisterna bidea ureztatzen.

Kalean jende gutxi, batzuk presaka, lasai besteak, poliki-poliki kioskora hurbildu, egun on esan eta egunkariari begirada patxadatsua emanez.

Sebero Altube plaza zeharkatuz gero, berriz, zer da hura! pipak, patatak, plastikozko poltsak, kakahuetak, zigarro pakete hustuak... Badirudi inguruan ez dagoela zakarrontzirik eta beleude ere, jendea bost axola zaizkiola.

Arratsaldeko seitan bor-bor egoten da jendez gainezka. Umeak, gazteak, gurasoak, lagunak, etab. Eguenen batean joan egin beharko lirarteke bertara goizeko zazpitan nola gelditzen den ikusteko. Kale garbitzaileek badakite horren berri. Galdetu eurei bestela.

Hain plaza politik ez du halako traturik merezi, ala bai?

Juan Joxe B.

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan neurri guztietako altzariak

Araba Etorbidea 13, Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



HAURTUOA
ARRASATE

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

JOSTEKO OIHAL DENDA

Esperientzia duen jostuna behar da

Errekabarrena 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA

GALERIA 44



OSO GAUZA BEREZIAK

Zerkaosteta 8



Zer iruditzen zaizu hormetan kartelak jartzea debektzea?




Alberto Azkoaga
(Botikarioa)
Niri iruditzen zait panelekin hobeto dagoela. Horrela garbitasun handiagoa egongo da, eta zibilizazioan hori behar da.



Kontxita Heriz
(Etxekoandrea)
Oso ondo iruditzen zait. Bestela kaleak oso zatar eta zikin egoten dira.




Marijo Bedia
(Geriatría laguntzailea)
Denek aukera bera izan dezaten nahikoa panel jartzen badituzte, ondo iruditzen zait. Hormetan jartzea baino hobeto bai behintzat.



Gaizka Aranegi
(Ikaslea)
Nik ez dut ulertzen horretaz, baina kaleak horrela garbiago egongo lirateke.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

URKIDEL

DELINEAZIOA

Basabe poliganoa B-0
ARETXABALETA Tfnoa: 77 03 61

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua.....	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak.....	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea.....	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua).....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero).....	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza.....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza.....	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte.....	79 87 77
---	----------



28

Ostirala

• • •

- Zinea: Alai "Campo de sueños", 7 eta 9.30etan. Novedades: "Nunca fuimos angeles", 10.30etan.
- Apotzagan afaria 9.30etan bertsolari eta trikitilariekin batera.
- Oñatin danborrada gaueko 10etan.
- Aretxabaletan rock kontzertua, Malaña, Akulu, eta Eskoria-tza taldeekin.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

29

Larunbata

• • •

- Zinea: Alai. "Las montañas de la luna", 5, 7.30, eta 10.30etan. Novedades. "Solo ante la ley". 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Oñatin arratsaldeko 5etan parkea gaztetxoentzat. 19.30etan Zarautzeko abesbatzaren emanaldia. 22.30etan dantzaldia "Jator" taldearekin.
- Apotzagan arratsaldeko 4.30etan mus txapelketa.

- Aretxabaletan Jubilatuen Eguna, ospakizun ugariz egunean zehar.
- Goardiako farmazia: Amezua, Sta Marina.

30

Igandea

• • •

- Zinea: Alai. "Las montañas de la luna", 5, 7.30, eta 10.30etan. Novedades. "Nunca fuimos angeles", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Apotzagan Eskoriatzako bandaren emanaldia eguerdiko 1.30etan
- Oñatin kale antzerkia arratsaldeko 5etan "Karraka" taldearekin, eta gauean "Joselu anaiak" taldearen eskutik dantzaldia.
- Garagartzan herri bazkaria trikitilariekin.
- Aretxabaleta "Haur dantzarien eguna".
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena.

1

Astelehena

• • •

- Zinea: Alai. "Las montañas de la luna", 7 eta 9.30etan.

- Novedades. "Nunca fuimos angeles", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

2

Asteartea

• • •

- Zinea: Alai "Las montañas de la luna", 7 eta 9.30etan
- Sukaldaritza ikastaroa: arratsaldeko 3etan AEDK antolatuturik Maritereren eskutik.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

3

Asteazkena

• • •

- Hitzaldia: "Menopausia eta minbizi ginekologikoare prebentzioa". Lurdes Aritzituri onkologikoko doktoreak. Arratsaldeko 4etan AEDen.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena.

4

Osteguna

• • •

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

Kirol Agenda

Eskalada

• • •

- Larunbata 29, arratsaldeko 6etan Oñatiko Zubikoa polikiroldegian eskalada txapelketa.

Txirrindularitza

• • •

- Larunbata 29, goizeko 9etan Oñatin afizionatu mailako txirrindulari lasterketa.

Pilota

• • •

- Igandea 30, goizeko 10etan Aretxabaletan gazte mailako txirrindulari lasterketa.

- Larunbat 29, gaueko 22.30etan San Migel torneoaren azken partidoak Oñatiko Zubikoa polikiroldegiko frontoian.

Liburuak

• **Taberna zulokoak.** Alarigar Jualermu.

Erein argitateak kaleratu berri du Iñaki Aldekoa, Pako Aristi, Juan Garzia, Felipe Juaristi, Anjel Lertxundi eta Inazio Mujikaren lanez osatutako liburua. Hortik Alarigar Jualermu izena. Tonu, idazkera eta egitura desberdinetako sei ipuinotan taberna zuloko aidera moldatu da idazle bakoitza, nork bere bertsioa, zein garratz, zein umoretsu, hau ironiko, hura oroile, baina guztiak tabernako ketan ixtorio bana harilkatu nahi literarioan.



Ikastaroak

• AEDk antolatutako, datoren urriaren 2an hasi eta abenduak 11 arte **sukaldaritzako ikastaro** bati ekingo zaio. Mariteré sukaldari ezagunak emango du. Ikastaro honetan parte hartu nahi duten guztiak aurrez izena eman beharko dute AED, horretarako unerik egokiena arratsaldeko 6etatik 9etara bitartekoa izanik.

Ikastaroa asteartean emango da, arratsaldeko 3etan, eta izena emateko orduan 1.000 pezeta ordaindu beharko dira osagaien gastuei aurre egiteko. Prestatzen diren jakiak ikasleen artean zozkatuko dira.



ANTZERKIA

GRINA FATALA


Amaitzeko irailaren 29an, larunbata hain zuzen, gaueko hamar erdieetatik aurrera *"Grina fatala"* antzerki lana ikusteko aukera izango da. Ikuskizunaren antolatzailea Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzua izan da, eta ehun pezetagatik gustora barre egin ahal izango da.

Bost lagunen artean egiten dute ordu erdi irauten duen *"Grina fatala"* lanaren antzezpena, bi neska eta hiru mutil, eta antzezteko ordu erdi besterik ez badute behar, muntai guztia egiteko lau ordu erabiltzen dituzte.

"Grina fatala" lana Dario Fo idazlearen fartsan oinarrituta dago, *"Gli imbianchini non hanno ricordi"* fartsan hain zuzen, bost aktoreek pailazoz mozorroturik lan egiten dutelarik. Karmelo Muñoz, Eurne Agirregomezkorta, Pedro Eizagirre, Manu Aizpuru, eta Virginia Imaz aktoreak antzezpenean Lelo, Fina, Kiko, Pepus, eta Pauxa pailazoak bihurtzen dira.

Artea

• **II. Arte hamabostaldia** dela eta Irailaren 28an, arratsaldeko 5etan *"Arte eta trszendentzia"* izenburupean hitzaldia burutuko da, ondoren proiektzioa eskainiko da eta bukatzeko, *Pealt Head* talde kanadiarraren emanaldia.



Aipatutakoaz hamabostaldia amaiera emango bazaio ere, txapa banaketa egingo da ikusleen artean azken ekintza bezala. Artistek eginiko obraz erakusketa irekiko da Ospitale zaharreko tailerretan, aste bete egongo dira ikusgai.

Kilometroak 90

• AEDk antolatuta Andoainen izango den *Kilometroak 90*era joateko autobusa aterako da urriaren 7an Garibai geltokitik goizeko 9.15etan. Auto-

bus horretan Andoainera joan nahi duten guztiak izena eman dezakete AED, Iturriotz taberna, edo Hire liburudendan. Bidaiaren prezioa 600 pezeta da. Izena emateko epea urriaren 5ean bukatzen da, eguerdiko ordubatean. Izena aipatutako epean ematea oso inportantea da, urriaren 5a Maritxu Kajoi eguna da eta.

Jaiak

• **Garagartza auzoan jaiak** izango dituzte asteburuan. Ostirala 28an gaueko 10.30etan "Txintxarri" taldearekin dantzaldia. Larunbatean, arratsaldeko 5etan motor trebetasun lehiaketa eta irrstola erakustaldia egingo dira. Igan-deko ekintza aipagarriena herri bazkaria izango da auzoko plazan, "Alkorta anai-arrebak" trikitilariak alaiturik. Gogoratu beharra dago Garagartzako auzoetxean 28 eta 29an "Buzkentak" salgai egongo direla arratsaldeko 6.30etatik 10.30etara bitartean.



• **Apotzagan** ere jaietan izango dira asteburuan eta bertan izango diren ikuskizun aipagarrienak hauek liriteke: Ostiralean auzo afaria bertolari eta trikitilariekin. Larunbatean, gaueko 10.30etatik aurrera dantzaldia eta bolo txapelketa. Igandean, Eskoriatzako Udaleko musika bandaren emanaldia, meza nagusia, eta herri bazkaria.

.....
“
“
.....
Monterronen emaiten zela pastoralara irakur zitaiken afitxetan. Monterron leku arraroa gaztelu zahar-berritu polit bat da, hiri ertzean, parke bat daukala aldamenean; zuhaitz handi batzuren artean antzoki edo teatro gune natural bat, ezin egokiago pastoralaren emaiteko: Hendaiako Abadia gaztelua eraiki zuen Urrustoiko Abadiak berak, ezagutu balu, maitatuko zukeen leku xarmegarria”.

(X.H.-k iparraldeko Herria aldizkarian)

“
“
.....
Zer eman dizu kooperatibismoak?
Bizimodu bat betetzea, proiektu bat betetzea. Aberastasuna sortu dugu, makinaria, teknologia, lanpostuak. Azkenean, espiritua betetzen duen satisfakzioa eman dit”.

(Alfonso Gorroñogoitiak ETBko Nortasuna agirian saioan)

“
“
.....
Nire alabak Asier Arangurenengatik egiten du apostu. Mutilak emango du, bai, zer esanik. Boston-en Masterra egitetik dator eta apropos eginda baino WASP (White Anglo-Saxon Protestant) itxura handiagoa du. Ilehoria, begi argiak eta ile kizkurra kokotean, sugerentea oso. Inork ez luke esango Aretxabaletakoa denik”.

(Amatiñok Deia egunkarian)

Zeintzuk dira Gizarte Ekonomia mintegiaren helburuak?

Une honetan gizarte ekonomiak garrantzi handia dauka Europa eta munduan zehar ere. Kapitalismoak baditu egitura akatsak eta batzuk uste dugu gizarte ekonomia izan daitekeela akats horiek konpon ditzakeen sistema bakarra.

Akats horietako bat eskualdeen arteko desoreka da, esaterako Alemaniatik Greziara dagoen alde. Maila horretan Euskadi erdi-aldean dago, gorago egonda ere baina une honetan erdi inguruan dago. Alde nabari horiek egon ez daitezten, enpresak sortu nahi dira eskualde behartsuenetan, bertako jendearekin. Dirudienez sistemarik egokiena gizarte ekonomia litzateke.


Gizarte ekonomian enpresa publikoak, elkarte anonimo mugatuak eta kooperatibak sartzen dira. Zergatik nahi ditugu era honetako enpresak sortarazi? finko eta demokratikoak direlako.

Bestalde, kapitalismoaren beste egitura akatsa langabeziaren arazoa da. Gobernu guztiek gizarte ekonomian arazoa konpontzeko bidea ikusten dute.

Mundu guztian gizarte ekonomiari buruz hainbat zantza daude, ez dakigu ondo zer izan daitekeen gizarte ekonomia eta zer ezin daitekeen izan. Gizarte ekonomia-aren helburua gizartea aberastea da eta ez pertsona indibidualki aberastea.

Mintegi honek gizarte ekonomia kontzeptoan sakondu nahi du, jarri behar zaion mugetan, eta legedia berri baten oinarriak ezarri, jakiteko zeintzuk enpresa sar daitezkeen gizarte ekonomian eta zeintzuk ez.

Jose Mari Larrañaga,
Ikasbide.



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Bergara

Begarako Udalak pasa den irailaren 21ean 1990 urteari dagokion aurrekontuak onartu zituen, azkenean 1.365 milioi pezeta izan direlarik onartutakoak. Aurrekontu horiek onartzearen alde bakarrik HB eta EA alderdiak agertu ziren, EAJ,EE, eta PSOEek abstentzioa aukeratu zuten bitartean. Emaizta horien arabera, badirudi batzuk zein besteak ez direla onartutako aurrekontuekin gustora gelditu. Iazko aurrekontuekin konparatuaz gero aurten goan 100 milioi pta. baino gehiago erabiliko dira.

Gatzaga

Hamabost egunetan Gatzagako kultur etxean Maite Beitia margolariaren erakusketa izango dute ikusgai bertara hurbiltzen direnak. Astegunetan erakusketa arratsaldeko 6tatik 8etara bitartean egongo da zabalik; asteburuan berriz eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 7etatik 9etara.



Oñati

San Miguelak ospatuko dituzte ostirala 28tik aurrera Oñatin eta hasteko ikusgarriena gaueko hamarretatik aurrera gertatuko da, danborrada egingo dute eta. Larunbatean berriz, kirol ospakizunetan murgilduko da eguna, goizeko 9etan txirrindulariak, arratsaldeko 6etan eskalada txapelketa, eta gaueko 10.30etan pilota partiduak Zubikua polikiroldegian. Pilota partiduak hasten diren une berean herriko plazan "Jator" taldearen eskutik hasiera emango zaio goizalderateko dantzaldiari.

Igandeko ospakizun ikusgarrienak arratsaldean burutuko den sokamuturra, "Karraka" taldearen emanaldia 8etatik aurrera, eta gaueko dantzaldia "Joselu anaiak" taldearekin.

Bestalde, esan beharra dago asteburuko ekitaldiez aparte, astean zehar herriko jubilatuei eskainitako ospakizunak eramango direla aurrera.

Aretxabaleta

Haur dantzarien eguna ospatuko dute igandean atxabaltarrek. Egunari hasiera emateko dantzari talde guztiak Gipuzkoako plazan elkartuko dira, ondoren hamarretakoa egiteko asmoz. Behin hamarretakoa egingakoan, talde ezberdinak hiru tokitan banatuko dira dantza egiteko: Mitarte plaza, Gemika plaza eta Herriko plazan. Eguerdiko ordu-batak aldera berriro bilduko dira talde guztiak, txistulariek alardea eskainiko dute-larik.

Bazkaldu eta gero, arratsaldeko 5.30etan, dantzari alardea burutuko da. Ondoren "Nekaezinak" txaranga-ren eskutik kalejira egingo da modu alaietz jaiari bukaera emanez.



I. Laborra Erdozain

ANALISI KLINIKOAK

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
urriaren 5erako

- Antxoa gatzunduen entsalada pistatza gainean.
- Mero salpikioa eta perretxikoak labean erreak.
- Ahate-solomotoxa melokotoi saltsan.
- Pagoeta madariak mahats-bikolorez.

BEREZI-BEREZIA MARITXU KAJOI EGUNERAKO!

3.300 pta. BEZ bane

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Publizitatea, paneletan bakarrik

Horma garbitzeko proposamena atzera bota

Gainean ditugun hauteskudeen aurretiko kanpainak zeresana sortu dute propaganda bideratzeko moduari dagokionez. Arrasateko Udaleko osoko bilkurak onartu egin zituen uztai-

lean *Eudel*-ek hauteskunde kanpaine-tako publizitatearen gainean erabakitako erizpideak. Horien barruan, ibilgai-luetatik panfletoak botatzea eta hormetan kartelak ezartzea debekatu egiten da. 25 eta 50 mila biztanle dituzten herrientzat, 25 gune izendatu dituzte, eta Arrasaten 120 panel dira, alderdi guztientzat espazio bera emango delarik. Panelok erosteko erabakia hartu da dagoeneko Arrasaten. Erostea 700.000 pta kostako da eta ipintzea berriz, beste 800.000 gehiago. Gauzak horrela, hauteskunde aurretik kale garbiketa egitea proposatu zuten, guztira 3 milioko aurrekontuarekin, baina HBko ordezkarien botuz atzera bota zen asmo hori.

Herriko zenbait taldek eta *Inem*-ek lokal berriak lortzeko egindako eskariari buruz, berriz, Gobernu Batzordean mahai gainean geratu zen kontu hori, herriko lokal hutsen azterketa burutu artean ez da eta jakingo zer banaketa egin daitekeen.



120 panel jarriko dira


Udaletxea- Ospitale Zaharra
Europako Elkarrekin ondasun arkitonikoak zaindu eta sustatzeko ematen dituzten laguntzei Arrasateko Udalak egindako eskariak ezetza jaso du. Udal proiektu biak Udaletxea eta Ospitale Zaharra berritzeko lanei buruzkoa zen., eta beraz ez dago dirulaguntzarik lan horiek bideratzeko.

Enplegu bulegoa
Inem enplegu bulegoak, orain arteko bulegoak txiki geratu zaizkiola eta, lokal berria alokatzea eskatu dio Udalari. Oraingoz ez dago horretarako biderik, herriko lokalen azterketa egin eta beste eskakizunei ere erantzuna eman arte. Hala ere, garrantzitsu erizten dio Udalak bulego hori Arrasaten edukitzeari.

San Viator
San Viator Ikastolak bere instalazioak handitzeko Udalari egindako eskariak ezeztatu erantzuna jaso du. Azkenaldian ikastetxe ezberdinek handitzeko baimenak eskatzeak ez du zentzurik Udalaren eritziz, kontraesan bait dago haur kopuruaren gutxitzearekin.

Hauteskunde-mahalak

Astearte goizean, Udaletxeko Plenu Aretoran, urriaren 28ko hauteskundetako mahaietan egongo direnen izenak atera ziren. Udaletxeko idazkariak atera zituen paperxoak eta itendako zenbakiak Bergarara bidaliko dira. Izendapenak egin eta gero, Udalari dagokio aukeratutako bakoitzari jakin araztea, ezinik balu arrazoibidea aurkez dezan. Guztira 279 arrasatearren izenak atera dira: 31 mahaietarako, bakoitzerako 9 lagun, ordezkoko eta guzti. Astebete baino lehen jakingo dira izenak.



K i D E

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Azken aldian gazte gehiago hurbiltzen da

Kontzientzi eragozpenaz, zer?

Talde Antimilitaristak informazioa Gazte Zerbitzuan

Gazte Zerbitzuaren barruan, Gari-bai Jauregian, beste zerbitzu bat eskaintzen zaio Arrasateko gazteari. Ez da berria, lehen ere Talde antimilitaristak Monterronen egiten bait zuen lan hori bera. Orain, astelehen eta asteartean, arratsaldeko 5.30etatik 7ak arte objeioari buruz aholkua eskatzera etor daiteke edozein. Lau gazte antimilitarista, *Kakitzat* erakundeko partaide direnak, lehen azalpenak eman edo hartarako erabakia hartuta datorrenari tramiteak egiten laguntzeko prest daude. Lehenik, argi adierazten zaio datorrenari zer arrisku duen. Espetxera joan zaitezke. Urratsa ematea pentsatu ondoren, agiri guztiak bulego horretan gordetzen dizkiote eragozle nahiz insumisoari, eta zerbait gertatuz gero, abokatuaren laguntza ere garantizaturik izango du.

Iñigo Irasuegiren kasua gertatu

aurretik kontzientziarik ez bazegoen ere, azken hilabeteetan asko ugaritu da informazioa eske nahiz paperak egiteko laguntza eske datorren gazte kopurua, Pertsiar Golkoko arazoa piztu zenetik batez ere. Astebetean sei eskari bideratu dituzte. Jende gehiena ez dago, hala ere, oso kontzientziaturik, eta azken momentuan eta soldadutzara joan beharra baino egun batzuk lehenago etortzen dira, larrituta.

Oraingoz ez da oso ugaria, bestalde, soldadutza egin ondorengo objeioa, ekintza testimoniala, baina esanguratsua talde antimilitaristakoen eritziz. Aholkularitza beste gai batzuetara ere hedatu nahi lukete, aurrera begira objeio fiskalaren arloa ere ikutuaz. Talde antimilitaristak, bere aldetik, beste ekintza batzuk ere antolatzen ditu, eta besteak beste Aste antimilitarista prestatzen ari dira urrirako.

Usteak uste

Bartzelonan egon berri diren Herri Telebisten V. iharduraldian, kazetari batek baino gehiagok harriduraz ikusi zuten bai nahian zein entzuleen artean alkateak eta zinegotzien presentzia. Andorra, Motril, Puig eta Eskoriatzak, besteak beste, alkateak edo zinegotziak bidali zituzten. Ordezkarri gehien PSOEek zituen, baina baziren PP, CIU, IU, Partido Andaluzista eta Eeko zinegotziak.

Bistan da alkate eta zinegotzi hauek udal telebisten izenean agertu zirela. Ez da harrizkoa, beraz. Hala ere, zenbaiten artean ez zen ondo ikusten administrazioaren presentzia nabarmen hura, herri telebisten aurrerantzerako iharduna kontrolatu nahi izango dutelakoan.

Argi dago udal telebisten jatorria ere desberdina dela. Telesko nola eta zer konpontzeko sortu zen edo Valenziako Puigeko udal telebista, guztiz kasu desberdinak dira. Puigean PSOEko superzinegotzi bat zegoen, lau batzorderen buru (Hazienda, Kirolak, Hezkuntza eta Kultura), eta telebistako zuzendaria zena. Hori zen hain zuzen, kazetarien artean susmo handienak sortzen zituena. Probintzia eta herri mailako politikoak konturatu dira telebistaren garrantziak agintean segitzeko eta eurak sortu eta kontrolatzera doaz, zioten kazetariak. Bertan zegoen zenbait politikok, beren jarrera bide, sinesgarritasun handia eman zioten errezehuari.

Joxe Aransabal



Mila hitz baino
argiagoa da
irudi bat



GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

E D E L
TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Berriz ohizkoa bihurtu da irudi hau

Umeen matrikulazioak behera

2.100 haur inguru 8. mailara arte

Ikasturte berria hasia da, eta asko entzun dugu ikasle kopuruaren jaitsierari buruz. Gipuzkoa osoan iaz baino 20.000 ume gutxiagok eman du izena, itxuraz, eta horrek kezka sortu du hainbat sektoretan.

Arrasaten kokatuta dauden ikastola eta eskolek atera dituzte aurtengo matrikulazioari buruzko datuak. Eskolaurreri dagozkionek ematen digute jaitsieraren informazioa. Bi urteraino koetan 78 dira Umezaintzan izena emandakoak eta 5 urte bitarteko hau-

rrak 373 dira aurten, Ume zaintza, San Andres, Erguin, Musakola, Asuncion, Merced, Ferial, eta San Frantzisko Xabier-eko matrikulazioei begira. Iaz 944 izan ziren gutzira.

O.H.O.n, eta lehengo ikastetxeak kontuan izanik, 1., 2., 3. eta 4. mailetan matrikulatutako haurrak 1.064 dira, eta 1.573 hurrengo lau ikasturteetan. Gutzira 2.737 ikasle dira aurten, iaz baino ia 200 ikasle gutxiago. Kontuan izan behar da hemen ez direla sartzen Almenen dabilzan arrasatearrak.

□ Lokal guztien errolda

Arrasateko Udalak, INEren ekimenez, eraikuntza eta lokalen errolda egiteko taldea osatu du. Ikastaro baten ondoren, 9 lagunek ekingo diote lanari, eta hurrengo padroia egiteko estudio berri horretan oinarrituko dira.

□ Espeleologia 2. Ikastaroa

Udaleko Gazteria batzordearen ekimenez, Espeleologiari buruzko bigarren ikastaroa antolatuko da; ekintzak azaroaren 10, 11, 18 eta 25ean eta abenduaren 2rako pentsatu dira.

□ Alkartetxearen inaugurazioa

Bihar, larunbata, eguerdiko 12etan Inazio Zuloaga kaleko Alkartetxearen inaugurazioa egingo da. Ekintza horretara Karlos Garaikoetxea, Anjel Larrañaga eta Iñazio Oliveri etorriko dira.

Jaiotzak

Gordoa Azpiazu **Xabier**. Irailak 12
 Abarrategi **Leza Julen**. Irailak 15
 Isasisasmendi Landaluze **Anje**. Irailak 15
 Gallego Solaguren **Iraiti**. Irailak 15
 Azula Lorenzo **Ainize**. Irailak 16
 Lebrijo Palma **L.Maria**. Irailak 18
 Azkoaga Iriarte **Eztibalitz**. Irailak 19
 Ruiz de Egiño Azkarateazkuzua **Ane**.
 Irailak 19
 Flores Pablos **Sonia**. Irailak 24

Ezkontzak

Jabier Balanzategi & M. Rosario Gonzalez, Elizaz, Irailak 22
Juan Miguel Kaperotxipi & M Karmen Ruiz de Azua, Irailak 22

Jose Aranzabal


ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 79 15 16



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN
 HORNIDURA OSOA
 OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate Pasealekua
 Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
 Telefax: 793412

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



Haurrek euren lekua izango dute larunbat goizean

Yoga Elkarteak hamar urte

Asteburuko ekintza sorta kalera


Arrasateko Yoga Elkarteak bere 10. urtemuga bete du aste honetan. Hori dela eta aste guztian zehar hainbat ekintza burutu dira. Yoga eta osasunaren inguruko gaiak Jose Luis Armeniak, Yoga Elkartearen sortzaileak, nahiz kanpotik ekarritako espezialistek emanak. Jende aldetik erantzun ona izan dute Monterrongo hitzaldi eta erakusaldi ezberdinek.

Asteburuan jarraituko dute ekin- tzeak, baina amaiera horri kutsu prakti- koagoa eman nahi izan zaio. Horrela, larunbat goizean, Altamirako plazan


Yoga azalpena izango da, lehenengo yoga klase bat (70 urte inguruko ikasleak barne direla); ondoren, lau lagunek postura edo jarrera aurreratua- goak egingo dituzte, eta haurren yoga azalpen batekin amaituko dira goizera- ko antolatutakoak. Arratsaldean ma- saiak hartzeko edo oinarrizko gauzak ikasteko aukera izango du elartearen lokaletara hurbitzen denak. Igandean bukatuko dira aurtengo ospakizunera- ko pentsatutakoak, goizeko 10etan izango den Tai-Chi azalpenarekin bukatu ere.

Diego Arriaran etxebizitzaren zentsua egiten

Argazkiko mutila Diego Arria- ran Villar da. Sei hilabete zehar etxez-etxe ibiliko da, Arrasateko etxebizitzari buruzko zentsua egiten. Hutsik dagoen etxe bakoitzaren egoera jasoko du. Udaletxean hutsik daudela ageri arren, horietako asko alokatuta edo alokatzeaz, nahiz salduta daude eta. Atera badatorki- zu, jakinean zaude zertara datorren, zure erantzuna behar du.



Diego Arriaran



Telefax-kopiagailuak

ZERBITZUA

Hau da RICOH-ren giza ikuspegia: zerbitzu teknikoaren ikuspegi arin eta eraginkorra, arazoak denboraldirik laburrenean konpondu ahal izateko. Zerbitzu-ikuspegia gure erabiltzaileak informatu eta trebatzeko, kopiagailu eta telefaxaren errendimendua ahalik eta onena izan dadin. Honela, elementu guztiz erabilgarri bihurtzen ditugu gure ekipoak, zure lana eraginkor eta atsegingarriago egin dezaten.

ERAGINKORTASUNA



INFORMAZIOA

ARINTASUNA

TREBAKUNTZA

Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.
Avenidaño 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

Zerbitzua

□ Kooperatibetako Masterra


Lan Kide Aurrezkiko Ikasbidek antolatuturik, Kooperatibei buruzko Masterra kaleratu da. 1990eko azaroaren 12tik 1991ko ekainaren 18ra bitartean eta enpresen zuzendaritza gaitzat harturik, talde txikietan lan egingo da, eztabaida eta elkarrizketa bultzatu asmoz. Enpresen zuzendaritzan esperientzia duten profesionaleri zuzendurik doa Master hau, eta guztira 440 ikastordu izango ditu.

□ Ederlan, saritua

Eskoriatzako Fagor Ederlan Koop. elkarteak sari berezia jaso du Europako General Motors-engandik. 1989 urteko probeedorerik onen izendatu dute General Motors-ekoek, kalitate, zerbitzu eta prezioan etengabeko hobetzea lortzeko eskaini duen laguntzarengatik. Aipamen berezi honekin, hiru dira Ederlanek dagoeneko jaso dituenak, Ford eta Austin Rover etxeek emandako biekina batera.

□ Merkatalgo txikia

Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuturik, Merkatalgo txikiaren gestioaren hobekuntzarako ikastaroa emango du Arrasaten, urriaren 15etik azaroaren 27ra. Egitarauan *Merkatalgo txikia gainalde erdiko eta handien aurrean* eta *Merkatalgo txikiaren gestio era berria* ageri dira.. Informazio gehiagotarako dei 77 14 42 eta 79 33 99 tfnoetara.



Gobernu Batzordeak atzera bota zuen PSOEn proposamena

Mankomunitatearen aurrekontua


Zerbitzu gehiago eskaini ahala, gora

Deba Garaiko Mankomunitateak onartu berri ditu aurtengo urteari dagozkion aurrekontuak, guztira 528.106.673 pezetakoak. Kopuru horretatik ez da dena gastu errealetarako erabiliko, 104 milioi inbertsionarako izango da eta. Gastu errealerako 434 milioi izendatu dituzte. Iazko aurrekontuarekin gonbaratuz, gastu erreala 353 milioikoa izan zen eta 86 inbertsionarako zuzendu, guztira 436. Aurrekontuak kopuruz handiagoak izatearen arrazoia, Mankomunitateak es-

kualdeko biztanleei eskaintzen dizkien zerbitzuen gehitzean bilatu behar da.

Aurtengo aurrekontuetan jasotako kopuruaren banaketan, garrantzi berezia hartzen dute heziketaren arloari eskainitakoek horrela: eskola tailerrak 92 milioi, heziketa okupazioanalak eta lanbide hastapenak 31 milioina, besteak beste.

Zaborren bilketak eta erretzeak ere diru kopuru garrantzitsua eskatzen dute: 1.512 milioi lehenak eta 82 bigarrenak.



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana	Haurrak	Maila guztiak
Frantsesa	Gazteak	Azterketarako prestakuntza
Ingelesa	Helduak	Ohizko ikastaroak eta trinkoak
Enpresak		

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ


L ARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Datozen Hauteskundeetarako gure bailarako hautagaiak



Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea, 25. HBtik.



Jose Luis Elkoro, Bergarako alkatea, 20. HBtik.



Esther Larrañaga, arrasatearra, 3. EAtik.




Jose Mari Velez de Mendizabal, 10. EAtik Araban.



Eli Galdos, Oñatikoko alkatea, 12. EAJtik.



Lorea Leanizbarrutia, atxabaltarra, 20. EAJtik.



Iñaki Arregi, arrasatearra, 10. EEtik.



Elisabet Zubiaga, arrasatearra, 20. EEtik.



Francisco J. Zendoia, bergararra, 23. PSOetik.

Zuzenketa:

Joan den asteko alean konturatuko zinetenez, inprimategiko akatsa medio, lau aurpegi ez zegoazden izenen ondoan agertu ziren. Gaurkoan bakoitza bere lekuan dago. Barka eta zorte on denori.

Izadi Kluba Deba Garaian

Lankide Aurrezkiko bazkide bategandik dator ideia. Aisialdirako gaur egun gero eta aukera gehiago dagoela kontutan izanik. Deba Garaian era horretako elkarte bat antolatzeke proposamena dago, honako asmo zehatz hauekin: 20 hektarea inguruko saila, 500 m-ko lokala, kirol instalazioak, zelaldia eta jolaslekua eta baratzenzako lursailak daude egitasmoen artean. Kostu guztia 250 milioikoa da, eta gestiorako lehen urratsak Lankide Aurrezkiak emango lituzke.

Pymes gestioa

Deba Garaiko Udal Elkarteek, *Pymes gestioa eta ekonomia sozialeko enpresak: geroko eragileak* izenburua daraman ikastaroa antolatu dute. Enpresa txikieneragileek honako gaiok jorratuko dira bertan: *Enpresaren has-tapena eta proiektuen bideragarritasuna*. Informazio gehiagotarako dei 77 14 42 edo 79 33 99 telefonoetara.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfn: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfn: 79 14 33
ARRASATE



200 lagun inguru bildu ziren joan zen astean LKA-k antolatu zuen **Gizarte Ekonomia mintegia** zela eta. Mintegi hori Gasteizen burutu bada ere, mündu guztitik etorritako kongresistek lau autobusetan banaturik Arrasateko kooperatibak bisitatu zituzten .



Hemen ditugu **Ana** eta **Itsaso** arrasatearrak, **Kalejira** programa grabatzeko prestatzen. Kasta handia erakutsi zuten buzodunok, eta telebistako lehiaketetarako grina berezia erakutsi zutenez, pentsatzen ari dira *El Precio Justora* ere joatea. Eguna zehaztea besterik ez omen zaie falta Madril aldera joan eta poltsikoa bete diru ekartzeko. Bitartean, urriaren 1ean izango ditugu ETBko kamaren aurrean. Ia zer egiten duten...

San Prudentziora bidean, Barrena baserriaren alboan, paraje ospela zegoen. **Ekilorekoek**, hala ere, landareentzat gun e egokia prestatzen jakin izan dute. Inaugurazio jendetsua eta lore bana bisitari bakoitzarentzat., hasiera polita izan da. Zorte on aurrerantzean ere.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97

Izen
PROPIOAK

◀ Argazkiko mutikoa Xabier Llodio Olalde dugu, eta atzeko gurutze handi hori, berriz, Aneto puntakoa. zortzi urte besterik ez baditu ere, arin igo zituen puntarainoko 3.404 metroak, guraso eta osaba-izebekin batean. Irailaren 15ean, goizeko 7.30etan irten zuten Rendusa refugiotik, eta arratsaldeko 8etan iritsi ziren. *Anie, Hiru Erregeen Mahaia* eta *Perdido* mendiak ere igo zituzten, besteak beste. Zorionak Xabi!


● **IÑAKI GORROÑO ARETIO-AURTENA**, 38, durangarrak, aste honetan zehar Gasteizen izan den Gizarte ekonomiar buruzko kongresuan, *Interkooperazioa merkatuari eta Europako merkatu berriari begira* gaiari buruzko ponentzia aurkeztu du. Iñaki LKAKo Inbertsio zuzendariordea da.

● **JUAN LUIS GOIKOLEAK**, 36, koruetarrak lehen saria irabazi du uztailan Zarautzen egindako *Horma pinturako V. erakuskarian*. Juan Luisek maestria ikasi zuen, eta pinturaren arloan autodidakta da. Mutikotan hasi zen margotzen. Gaur egun Ederlanen ari da lanean.

● **JON ANDONI URISABEL**, 18, bergararra izan da Zarautzen antolatutako XXX. aire zabaleko pintura lehiaketan irabazle. Jon Andoniren espezialitatea oleo pintura da eta Bergaran margolarien estudio bateko partaide da. Bukatu berri du UBI Bergarako Institutoan eta Arte Ederrak ikasteko asmoa du Leioak fakultatean.



Maite Martin eta Fernando Sedano, ekainaren 9an ezkondu ziren Dorletako elizan. Atzerapenez bada ere, zorionak bioi. ▶



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 048

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

Zazpi artista arkupeen artean

Hamabost egunez Kalistroak artearen topaleku

Goizeko 10.00etan zabaltzen dira atea, eta arratsalde, berriz, 5.00etatik 8.00etara sar zaitezke. Baina hor ez da bukatzen ordutegia. Artistaren lanak ordu bereziak eskatzen ditu. Horregatik, zotozanean ez dituzu, beharbada, denak aurkituko, edo ezorduetan bazatuz, norbait aurkituko duzu lanean.

Lan ezberdinak

San Frantziskoko kalistrotetako galeriak arte-lan ugari biltzen ditu. Egunotan ikusgai ditugunak, eginda ekarritako lanak dira, nork bere buruaren aurkezpen gisa, lanean diharduten hamabost egun hauetan zehar jendaurrean izango da bakoitzaren espezializazioa. Azkenean, lan bakoitzak egilearen oinordekotza hartzen du.

Angel Galipienzo eta Jose Bogak margoari eskaintzen diote euren denbora. Txoriak hartu ditu gaitzat bigarrenak, eta gai erotiko bat aztertu nahi du animalia horien irudiak marraztuaz.

"Naturan asko oinarritzen naiz nire lanak egiteko orduan. Ez da naturara itzuli behar dugula iruditzen zaidalako, ez dugu eta inoiz erabat aldegin". Naturatik ez dute aldegin, baina artista batzuk erabiltzen dituzten materialen artean, erabat artifizialak ere aurki daitezke. Ana Laura Alaez bilbotarrak formika eta plastikozko gaiak erabiltzen ditu batez ere, eguneroko elementuak, industriak bukatuta ematen dizkionak, *"horiekin lortzen ditudan emaitzak neuk nahi bezalakoak dira"*.

Sabin Egañak teknika klasikoak eta egungo makinak eskaintako bitartekoak erabiltzen ditu: fotokopiagailuz ateratako irudiz osatutako montajeari enkaustika eta tenplea gehitzen dizkie, irudiari testura emateko. Argizaria, olioia, arraultza gorringoa eta pigmentoak bezalako material organikoek amaiera ematen diote fotokopiagailuan hasitako lanari. *"Hizkuntza berezia lortzen dut honela, hitzez adierazi ezin dena"*. Gorputzen fragmentazioa, metodo konpositiboa, gain-



Jose Boga madrildarra lanean

jartzea dira bere gaiak eta zelula fotoelektrikoak erabiliaz, gune auditibo ezberdinak sortu nahi ditu, soinuen gainjarpenarekin.

Garaiko elementuak

Dani Laskurain bergararrak papera darabil, paper birziklatuaz konposizioak egiten ditu, eta eguneroko bizitzatik hartutako gainerako hainbat elementu tartekatzen. *"Zenbaiti arraroa egingo zaio mailua kuadroaren erdian ikustea, baina bakoitzak bizi den*

Hamabostaldiaren amaitzearekin, astebeteko erakusketa tailerretan

garaiko elementuen testigantza eman behar du".

Luis Larios argazkilaria

da, eta erakusketa bisitatzea eta tailerretan buelta bat ematera datorren edonori argazkia ateratzen dio. 64 argazkiz osatutako montaja egin nahi du, herriko aurpegiak, gure herriak berarentzat duen aurpegia erreflejatuko dutenak.

Txuspo Poyok etxetik ekarri duenak kalistorako apropos egina dirudi. Arkupeetik barruko zuhaitzetara begiratzuz gero, enborrean iltzatutako objektuak ikusten dira. Bitartean, hamabost egun hauetan artezaleek instalazio izenez ezagutzen dutena egingo dute. Horretarako, pelikula tirak bata bestearen ondoan, argi jokuak, eta fotokopiagailuz ateratako irudiak margotu. Bere lan guztiaren lagun soinu izango du. Pelt Head talde kanadiarrak musika esperimentalak egiten du, eta Txuspoaren instalazioan barneratu. Arrasateko kaleko soinuak bildu, eta hots muntaiak egingo dituzte. Soinu horixe da Hamabostaldiaren inguruko soinu giroa. Pelt Head neska eta mutila dira; neskak slogan eta esaldiak trukatzuz hitz jo-

koak idazten ditu. Plastikoa-
ren gainean kuadroa pinta-
tzen edo bere arropari iru-
diak egiten ikusiko duzu.

Sentsazioak sortaraztea

Artista guzti hauen bu-
ruan, norbere garaiaren
lekukotasuna uztea ere bada
ardura. Hargatik dabilzate
egungo materialak, hargatik
biltzen euren lanetan
egungo bizipen eta erreali-
tateak. Ez diote korronte
bati jarraitzen, norberari ba-
rrutik ateratzen zaiona da ja-
rraitu beharreko bidea. Az-
kenean, jendearen eritzia
neurri batean da bakarrik
interesgarria, baina ez du
eraginik egindako lanean.

Gaurko artean sentsa-
zioak sortaraztea bilatzen
da, artelanak mugitu egin
behar zaitu. Estetikoa den



Zazpi artistek tailer berean egiten dute lan

guztia ez da polita, fuertea
edo hunkigarria izan daite-
ke, eta daukan indarrarenga-
tik gustatu. Bakoitzak ikusi-
ko du zer esaten dion obrak.

*“Guk uste baino gehiago
ulertzen du jendeak, ez nos-
ki bodegoian edo kazerian
geratu denak. Gaur egun
arteak ez da zaldia, lorontzia
eta andre biluzia. Hori bai-
no gehiago da”.*

Ez dago esan beharrik.
Hamabostaldian gehiago
ikusten da, eta batez ere,
giro berezia bizi da. Arte-
rekin eta artearentzat bizi
diren, eta inoiz iraun baino
ez, gosea pasatzen duten
lagun hauek, Arrasatekoare-
kin gustora daudela esan
digute. Erreibindikaziorako
ere leku egokia omen da
kalistroa. Egun hauetan bi-
sitate ez dituenak, hurrengo
astean erakusketa izango
ditu obra guztiak amaituta.
Kalistroari buelta eman, tai-
llerretan begiratu, eta irtee-
ran, utzi zure eritzia -ma-
rrazki bat, hitz bat...- ate
ondoko liburuskan. Eske-
rik asko.

Egilearen beraren hitzetan

Hamabostaldia iaz ekin zion bere ibilbideari. Artearen inguruan mugit-
zen ziren 18 arrasatearrek, *Hamabostaldi taldeak*, antolatu zuten
lehenengo ekitaldia. Helburu bikoitza zeukaten buruan: herrian ere
artistak bazirela erakustea, eta ekintza guztia hamabost egunetara
mugatu barik, aurrera begira lokalak eta egitura iraunkorra sortzea.

Bukatuta daudenean, Arrasaten geratuko dira artelanak, baina egileak ematen
dion azalpen barik, norberaren interpretazioa izango da obrak irakurtzeko modu
bakarra. Artistak beste era batera adieraziko dizu bere lanaren inguruko sentipena.
Ana Laura Alaezek hitz hauen bidez azaltzen du buruan darabilena: *“Bada tunel
bat, doan edo datorren bidazti bakarrarentzat lekua duena. Aurrerako norabidean
doazen bik tril egiten badute, eta bietako bat beste bizitzara pasaniko da.
Ebidenziaren gastronomia ez da era honetan elkartzea baino. Begiratzen duen
objektua zein bizitza motakoa den diagnostikatzen du ikusleak. Objentuak ere baditu
desioak, eta beraz, antzematen dio ikusleari joanekoa den... ala bueltan datorren.
Harreman erikor mota honi uko egin eta madarikatzea, horixe da erronka”.*


**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak


Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia iraultiko duen hiztegia edukil ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zurzilarruzko azalak, 24 kilalestako urez sutu eginak estalnapaziekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokopiosioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Euskara ikasteko erabili beharreko obra

LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93

Jesus Mari Plazaola

Jesus Mari eta "Mendi", bi lagun

Jesus Maria Plazaola, Udala auzoko Palacio baserrian jaio zen duela 33 urte. 16 urte bete zituenetik Udala inguruko zelaietan dabil artzain lanetan. Oñatiko nazioarteko ardi-txakur lehiaketan bigarrena izatea lortu zuen bere txakur "Mendi"rekin.

— Noizdanik lehiaketetan?

— Artzain hasi nintzenetik. Beste urte batzuetan "Mendi"ren aitarekin ibili izan naiz eta Oñatiko lehiaketara hiru alditan iristea ere lortu dut, baina aurtengoa izan da hoberena, beste batzuetan atzerago gelditu naiz.

— Aurtengo bigarren postua hobetu asmoz?

— Baietz uste dut, datozen urteetan hobeto ibiliko gara txakurra eta biok. Orain "Mendi"k bi urte dauzka eta espero dut pare bat edo hiru urteetan hobetu egingo dela. Txakurrarekin gero eta denbora luzeago eginez gero, hobetzera joaten da. Denborak txakurra ezagutzeko aukera ematen dizu eta txakurrari ere nagusia ezagutzeko aukera ematen dio. Inportantea da bata bestea ondo ezagutzea.

— Elkarrekiko ezagupena inportantea bada ere, he-

ziketak izango du bere garrantzia, ezta?

— Txikitatik erakutsi behar zaio. Erakusteko modurik hoberena txakurrari ondo egitea dela uste dut, makila erabiltzeak ez dakar emaitza onik. Halere, txakur guztiak ez dira, ondo eginda ere, erakusteko errazak izaten. Gutxiago edo gehiago moldatzen dira, baina denek ez dute berdin ikasten.

— Heziketa horren emaitzak eguneroko lanean ikusiko dira. Badago diferentziarik mendiko lanetik lehiaketetako lanetara?

— Bai, diferentzia handia dago. Txaloak direla eta ez direla, txakurra konturatzen da. "Mendi" ez da urduri jar-

tzen bait gara gure desioen berri emateko txakurrari

— Jesus Mari, 300 ardi inguru omen dituzu. Beharrezkoak dira txakurrak ardiak zaintzeko?

— Ardi lanetarako dauz-kagu txakurrak eta funtzio hori betetzen dute, asko laguntzen dute eta txakurrak gabe ezingo ginateke ibili ardiekin. Land Rover eta horiek ere ondo datoz ardi lanetarako, baina txakurrak beharrezkoak dira. Nik neuk, gustatzen zaidalako, mendi buelta gehienak oinez egiten ditut. Izaten dira egun batzuk, gogorik ez duzula edo eguraldi txarra dagoela. Land Roverra erabiltzen duzu eta pista onak egonez gero, asko mozten

Afizioa eta gustua behar da lan honetarako, gaur egunean ogia irabazteko hainbat ofizio hobea daude eta.

— Lehiaketetara itzuliz, izan duzu inoiz beste artzainen baten txakurraren inbidiarik?

— Ez, inbidiarik ez, etxean betidanik txakur onak izan ditudalako, baina izan dira batzuk asko gustatu zaizkidanak. Oraingoz pozik nago daukadan txakurrarekin, gazte samarra bada ere. Beste anaia gazteagoa badauka "Mendi"k, baina lehiaketetan parte hartzeko heldutasunik ez dauka oraindik.

— Eta beste lehiakideekiko harremanak nolakoak izaten dira?

— Oso onak, zortzi urteetan joan naiz Kataluniara eta beti etxekotzat hartu naute. Eurak hona etortzen direnean ere berdin tratatzen ditugu.

— Lehen esan duzunez, lehiaketetan jende asko ego-teak izaten du eraginik txakurren lanean. Badago beste gauzarik txakurraren lana aldatzen duenik?

— Bai, eguraldiak eragin handia izaten du. Esaterako Oñatin burututako lehiaketan txakurraren lanerako eguraldi ezin hobea egin zuen. Badira beste egun batzuk, bero eta sargoria egiten duenak hain zuzen, txakurrarentzat oso txarrak direnak. Horrelako egunetan moteldu egiten dira eta ez dute behar bezala erantzuten.

Inportantea da batak bestea ondo ezagutzea"

tzen, baina badira beste txakur batzuk lehiaketan oso nerbioso jartzen direnak.

— Badago artzainik bat txistu egiten ez dakienik?

— Oso zaila ikusten dut hori. Behar bada egongo da bateren bat hortzak aldatu diotelako edo, ezinean ibiliko dena, baina nekeza iruditzen zait. Oihuak, txistukadak, eta makilaren mugimenduak behar beharrezkoak dira artzaina eta txakurraren arteko harremanetan, haietaz balia-

dute bidea eta denbora.

— Eta atera daiteke bizi-modurik?

— Ardietatik bizitzea ez da bat ere erraza, bizimodu guztira nahiko estu dago eta ardi kontua ere estu dago, baina bizi daiteke. Mendian lau ordu inguru egin behar izaten da egunero sasoi honetan, gero negu aldera egun guztia. Ardi esnearekin gazta egiten dugu, hori da etekin bakarra. Artilea saldu ezinik egon gara azken bi urteotan.

Saskibaloian ia lehen mailakoan parean


Luzapenera iristea lortu zuten

Mila pertsona inguru bildu ziren pasa den asteartean Arrasateko polikiroldegian *Centraljet Euskal Air-Loiola 91* saski baloi partidua ikustera, eta esan behar da ikuskizun ezin hobea suertatu zitzaizela.

Teorian, bi taldeen artean dagoen maila diferentzia igarri behar zen kantxa gainean; baina, une batzuetan ezik, ez zen horrelakorik gertatu eta zorte apur batekin mondragoetarrek garaipena ere lortu zezaketen.

Lehen zatian donostiarrek agindu zuten markagailuan. Hasieratik *Loiola 91* taldeko gizonak aurrea hartu zieten *Centraljet Euskal Air* taldeko mutilei. Lehen minutu horietan donostiarrei ia guztia ondo ateratzen zitzaizen bitartean mondragoetarrek ez zuten asmatzen saskiratze orduan. Egoera horrelakoa izanik ez da arraroa atsedenean markagailuak 18 tantuko diferentzia erakustea *Loiola 91* taldearen alde.

Bigarren zatia lehena bukatu zen era berean hasi zen, hau da, donostia-



Gerardo Mondragon jokalaria



Partido bikaina jokatu zuten mondragoetarrek

ren abantaila areagotuz. 22 tantuko diferentzia ere lortu zuen *Loiola 91* taldeak eta bazirudien mondragotarrek zereginik ez zutela izango, baina gauzak asko aldatuko ziren.

Txus Brizuelaren aginduetara jokatzen duten mutilek presioa eginez, baloi asko lapurtu eta saskiratzen hasi ziren. Markagailuan gero eta gertuago egonda, ikusleak ere berotu ziren eta hasieran ezinezkoa zirudienean pentsatzen hasi. Ikusleen animoak jasoz, Arrasateko taldeak gero eta hobeto jokatzen zuen bitartean, donostiarrenak ez zuten ezertan asmatzen, azken partiduetan egin duen bezala.

Azken minutuan markagailuak erakusten zuen emaitza bost tantuagatik donostiarren aldekoa zen, baina mondragoetarrek baloia lapurtzea lortu zuten bi aldiz eta baten gainera saskiratzen, hirukoitza lortzea. Beraz,

azken emaitza 90-90ekoa izan zen.

Luzapenak ez zuen historia gehiegi izan, pertsonalak medio, jokoa denbora luzean geldirik egon zelako. Une horiek hobeto aprobetxatu zituzten *Loiola 91* taldeko gizonak eta azkenean markagailuak 96-102ko emaitza erakusten zuen. Dena den, jendea oso gustora atera zen ikusitakoagatik, batez ere Arrasateko taldearen jokoagatik.

Partiduan parte hartu zutenak eta eurek lortutako tantoak hauek dira:

Centraljet Euskal Air: Saez de Viteri(27), Arrollibe(5), Garay(15), Gutierrez(6), Azkarate(17), Otxoa(2), Garcia(2), Ayastin(2), eta Errasti(14).

Loiola 91: Herreros(7), Gonzalez(12), Alocen(20), Urducin(6), Taylor(15), Amon(22), Txapartegi(2), Vidal(4), Goikoetxea(6), eta Fernandez(8).

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

JOSE MARI BARANDIARAN


Erretiratu ezinezko pilotaria

Jose Mari Barandiaran duela 44 urte Garagartza auzoan jaio zen, bere lehen pausak pilotalekura zuzendu zituelarik. "Txiki txikitatik hasi nintzen pilotan jokatzeko, orduan ez zegoen besterik eta egun guztia pilotan jokatzeko ematen genuen. Oraindik ere ez diot utzi pilotan jokatzeari, beteroanetara jokatzeko bait dut".

Txikitatik beteroanetara badago tartea eta tarte horretan Jose Mari Barandiaranek pilotari profesionalen mundua ezagutzeko aukera izan zuen, lehen mailan arituz. "Retegi II. Pierola, Ogueta eta horrelako jendearekin jokatuakoa naiz, beti atzelari lanetan ibiliz. Beharbada horregatik nahiago izan dut binaka jokatu banaka baino, eta binakako joko horretan lagunik hoberena Retegi II. izan da. Retegi pilotari izateko jaiotakoa da, hark atzetik ona eginaz gero, jai zegoen, tantoa egiten zuen".

1987an utzi zion Barandiaranek profesionala izateari eta beteroanetara kategorian sartu zen. "Adinaren kontua izan zen, urteetan aurrera lehen kategoriatik bigarrenera pasatu nintzen eta gero hirugarrenera. Orduan utzi nuen profesionaltasuna eta beteroanetara hasi nintzen".

PODIUMA




Gaur egun pilotan aritzeak ere frontoietan erabiltzen den materialari buruz hitz egiteko eskubidea ematen dio Jose Mari Barandiarani. "Gure garaian baino askoz ere pilota bizi eta arinagoak ateratzen dituzte, orduan motelagoak izaten ziren eta horrek ikuskizunari mesede egiten zion. Orain erakusi beharrean sakea dela eta ez dela partidoak irabaztera jotzen dira, ez pilotan ikastera. Lehen pilota gogorragoak ziren, astunagoak, eta joko gehiago ikusten zen; orain ordea indar gehien daukanak irabazten du".

Baju samar ikusten du Barandiaranek pilotarekiko giroa azkenaldi honetan eta behar bada horregatik ez da oso baikor agertzen etorkizunari begira. "Ez dakit gogor samarra ote den edo, baina hemen ez da ateratzen inor, Urola dabil nire atzean baina ez da gehiagorik ateratzen".

Artekarieiburuz ere badu bere eritzia Barandiaranek. "Askoz ere hobeto jokatzeko da barik, jendeak gustorago ikusten du eta pilotaria ere lasaiegi ibiltzen da".

◆ Pello Bengoetxea, Mondra taldeko entrenatzaile ondarrutarrari eskaintza berezia egin dio Bigarren B mailan dagoen Andorra taldeko zuzendaritzak, bertara joan dadin.



Ekonomia aldetik eskaintza ezin hobe izan bada ere, Mondraren entrenatzaileak hemen gelditzea nahiago izan du, hasitako lanari bukaera eman arte.

◆ Xabier Lazpiur atxabaltarrak zazpigarren postua lortu zuen Cannes-en burututako Nazioarteko Sarian erlojuaren aurkako modalitatean. Parte hartu zuten artean Xabier Lazpiur zen gazteena eta bere ustez postu hobe ere egingo zukeen hasieran lasaiegi ibili ez balitz.



◆ Ignacio Maizbidek Tolosako Berazubi estadioan Euskadiko rekord berria ezarri zuen pasaden larunbatean txabalina jaurtikitik, 60.78 metroko marka eginez.



Marka horri esker Ignacio Maizbide 60 metrotik pasatzen den lehen euskalduna izan da. Denboraldia amaitzek dagoela eta inork ez zuen horrelako markarik espero, baina Maizbidek oso gorpuzaldi onean dagoela erakutsi du.



AXOLA KLIMA

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- Liburuskak
- HOTZ INDUSTRIALA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45-46

Juergasmoan dabiltzanei

Disko baten inportantzia bi parametro ezberdinen arabera neur daiteke: molde ezagunen barruan diskoa zenbateraino den borobila edota molde ezagunak zenbateraino urratzen dituen, bide berrien bila. *Tapia eta Leturiak* aurtengo udan kaleratu duten "Juergasmoan" izeneko bigarren parametro horren arabera da inportantea.

Trikitixaren esparrua oso hertsia izan da oraintsu arte. Lagun bakarra panderoa zuen, eta batzuetan aho-tsa. Erabil zitezkeen moldeak, ohizko fandango, arin-arin, porrusalda edo kalejira. Zaleen multzoa ere



mugatua izan du, eta batipat nekazal giroari lotua.

Berrikuntzen garaia iritsi zaionean, ohizko hesiak apurtzea izan da lehenbiziko lana, trikitiak zer jotzeko balio duen eta zer-nolako musika-tresnekin ezkon daitekeen aztertzea. Joseba Tapiaren oraingo ahalegin hau esperimentu ezberdinetan gauzatu da. Alde batetik tex-mex delakora eta kantu zaharretara hurbildu du trikitrixa. Eta bestetik lagun

berriak aurkitu dizkio, hala nola perkusioa, tronpetak, kitarra elektrikoa edo teklatuak.

Emitza ez da borobila, baina horrek ez du diskoaren inportantzia bat ere murrizten. Bertan dauden esperimentuak, borobilak ala ez, hor daude trikitilari guztientzat eta seguru kontuan hartuko direla aurrerantzean. Baina gainera disko honi eta antzeko esperimentuei esker, trikitiari buruzko

eritzia aldatzen hasi da gazteengan. Zenbait rockeroengan nabaria da dagoneko trikitiarekiko begirunea eta jakinmina.

Dena den, trikitilarien ahalegin honek orain eskatzen duena bestelako musikoaren erantzuna da. Trikitia edozein musika-mota jotzeko gai baldin bada, eta musika-tresna gehienekin ondo ezkontzen bada, zergatik ez du rock edo heavy edo kanta zaharra edo blues egiten duen taldeak trikitia erabili behar? Zergatik ez du trikitiak edozein motatako euskal musika kutsatu behar?

Ea bada, Joseba, txarrena egina zegok. Segi lanean!

Mikel Irizar

fas

Offset Imprimaketa

- Fakturak
- Kartazalak
- Foileto eta kartelak
- Karpetak

- Bisita txartelak
- Gonbidapenak
- Lehenengo eta hurrengo orriak
- Albaranak

- Prezio egokiak tirada txikitetan
- Bizkortasuna (emanaldi epea 48 ordu)

- Koloretako eta zuri-beltzeko fotokopiak egiten dituen, Deba Garaiko lehendabiziko denda

- Plastifikaketa
- Eurokalkoa
- Autoedizioa

- Azaleztapenak
- Telefaxa
- Aurreidiseinuak

fasprint

Inprimaketa denda

Arrasate Pasealekua, 2

Telf. 77 06 11

Fax. 77 09 86

20500 Arrasate

SUKAL DARI TZA

Emalea: **MARITERE**
(herriko sukaldari ezaguna)

Non: **AEDn**

Hasiera: **urriak 2, asteartea.**

Bukaera: **abenduak 11**

Ordua: **3etan**

Osagaien gasturako ordaina **1.000 pta.**

Prestatutako jakiak bertan zozkatuko dira

lizenematea aurrez **AEDn**, arratsaldeko 6etatik
9etara



MAS TEKTO MIA

Gaia: **mastektomia**
(bularreko minbizia)

Non: **AEDn**

Ordua: **arratsaldeko 4etan**

• **Urriak 3: Menopausia eta
minbizi ginekologikoaren
prebentzioa.**

• **Urriak 10: Bularreko
minbiziaren prebentzioa.**

Emalea: **LURDES
ARISTZITURRI** (Onkologikoko
doktorea)

Babestzailea: **Gipuzkoako
Emakume Mastektomizatuen
elkartea**. Elkarte honen zergatiak
azalduko da hitzaldietan.
Emakume mastektomizatuek
beren esperientziaren berri emango
dute.



Irakurgidak

Irakurketa-zale-
tasuna bultzatze-
ko, liburuak eza-
gutzea eta ondo
aukeratzea oina-
rrikoa da; agian, hau da
animazio garrantzitsuena.

Hona hemen Irakasle
Eskolako Haur Liburu Min-
tegiak kaleratutako bi gida:

1. Haur eta Gazte Lite- ratura: Irakur gida 1989

Gida honen sarrerak ho-
rrela dio:

“Haurrentzako irakurke-
ta-sailak benetako *Potosi*
bilakatu dira argialetxeen-
tzat: gutxi aurkituko dituzu
bere “haur eta gazte” saila
ez duenik. Euskara berari
ere ez diote muzin egin, la-
guntza batzuk medio, kan-
poko izen handiko zenbait
argialetzek. Eta hemen-

goak ere ez, zorionez.

Ondorioz, liburu mor-
doska irakurtzeko suertea
dute euskal haur eta gaz-
teek, haiek haiek baino
gehiago, egia esateko.

Baina nola jakin, nola
jokatu, nora joan marabunta
honen erdian?

Pentsatu dugu jendeari
erakutsi egin behar zaiola
dagoena: urte oso batean
zehar, alegia, haurrei zuzen-
duta atera diren fikziozko
liburu guztiak *bildu eta*
aurkeztu.

Baina hori ez da nahi-
koa, behar bada.

Genero kaxkarra ere ba-
dabil gure artean; itzulpen
batzuk lotsagarriak dira eta
zenbait kontaktak aharrau-
sika uzten gaituzte.

Irakurri eta iritziak eman.

Haurren munduan -era
batera edo bestera- dauden
bibliotekari eta irakaslez
osaturiko talde batek heldu
dio lan honi: beste munduko
pretentsiorik gabe, baina
gogoz.

Zalantzak eta eztabaida
sutsu batzuk gorabehera,
pozik jorratu dugu bidea, eta
jarraitzekotan gaude.

2. H.C. Andersen Sa- ria. Jaso duten idazleen zerrenda (1956-1989)

Haur eta Gazte Literatu-
ra arloan ezagutzen dugun
saririk garrantzitsuena, Na-
zioarte mailan behinik-be-
hin, H. Christian Andersen
medaila da, berau IBBY-ren
eskutik eta bi urteik behin,
bizirik dagoen idazle zein
ilustratzaile batek jasotzen
duelarik. Haur Liburu

Mintegiak egoki ikusi du,
ohorezko sari hori, orain
arte bederen, jaso dutenen
idazle-zerrenda prestatzea.
Baita berorien obrak ere.

Aipaturiko lanen bat
eskuratzeko, idatzi helbi-
dera honetara:

Irakasle Eskola
Haur liburu Mintegia
20540 Eskoriatza

Klarion Taldea



“PAsION FATaL”


Clow-antzezlan (Clownart Konpainia)

IRAILAK 29 (larunbata)

Gaueko 10.30etan

Amaia Antzokian

Sarrera: 100 pta.



Rosa Otadui, "Katanga"

Rosa ez da autoaren esklabu. Joan behar duen lekura joateko erabiltzen du, baina oporretan eta bisitak egiteko batez ere. "Ez dut neuk garbitzen, pentsatu ere ez!" Bere laugarren autoa gorri bizia da, kolore deigarrikoa. Garajea ere badu, baina eroso ibiltzea gustatzen zaio eta ez du erabiltzen, berebela beti atean.

"Ez dakit kapota jasotzen ere, hori teknikoen lana da, baina neure burua oso gidari ontzat daukat. Lehen jendea hartu ere egiten nuen, baina lagunei ere gauza txarrak gertatu zaizkie, lapurretak eta halakoak. Orain ez dut inor hartzen".

Ford Escort



Construcciones ARRASATE S. L.


(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Tontorretako kondorrak (II)

Collon-eko plaza kosetxadora handi batek edertzen du, aurreko presidentearen, Alan Garciaren oparia, botoak lortzeko. Edozein modutan, inguru oso menditsua denez, ezin dute erabili eta merkatu egunean herri batetik bestera barazki eta antzekoak garraiatzen erabiltzeko asmoa dute.

Motxila, etab. mandoetan jarri ondoren, mendirantz astebeterako. Sei ordutako paseotxo egin ondoren, kanpamendua jartzea erabaki genuen, 4.200 metrotara. Inguru zoragarria benetan, 6.000ko mendi ugari inguruan eta gizonak aldatu gabeko natura. Dagoeneko "zure etxea" sentitzen hasi ginen, gero eta jasanezinagoa zen zoretxea, igarriko zenuten hau burukomina dela, 4.200 metroek ez zuten barkatzen, baina gure helburua bete nahi bagenuen aguantatzea beste erre-



mediorik ez zitzaigun gelditzen.

Hurrengo egunean Urus (5.450) edo Yamaraju (izotz beltza kechuaz) egiteko goizeko bostetan jaiki ginen, ordurako Agustinek gosaria prest

zuen. Guk gose handiegirik ez genuen arren, zerbait barrura sartu behar indarrei eusteko.

Igoera zaila izan ez bazen ere, malda ederrak zituen eta nahiko gogorra zen. 4.800 metrotan edurra zapaltzen hasi ginen, granpoiak janzteko atsedendia hartu eta bide batez zerbait jan. Gorputza poliki-poliki alturara ohitzen zihoan. Aldapak gogor samarrak dira 55ºtan baina edurra egoera onean zegoenez, nahiko ondo ibili ginen. Puntara heltzeko gutxi falta zenean, izotz kandela bikainak agertu zitzaizkigun gure begien aurrean. Sei ordu ibiltzen eman ondoren, azkenean heldu ginen gailurrera, baina nekatuegi geunden, mendiak eskaintzen zigun ikuskizunaz larrei gozatzeko. Derrigorrezko argazkiak atera, eta beherantz, han Agustinen bazkaria zain izango genuelakoan.

Hankamotz

Urrirako Kultur Ekintzak

• ZINEMA (Amaia zineman)

- 4 - Servicios Muy Personales
- 11- Tampopo
- 18- Inseparables
- 25- Desde Liverpool con amor

• TXOTXONGILOA (Herriko plazan)

13- TAUN TAUN "Laur eta Lorea"

• LIBURU AZOKA (9-14)

Garibai Etorbidean

• MUSIKA

- 12- Musika Bandaren kontzertua (Herriko Plazan)
- 19- THE FOUR BROTHERS (Amaia antzokian) (Afrikako musika taldea)

• ERAKUSKETA

Monterronen
Gizakia eta bere inguru ekologikoa

• ANTZERKIA (Amaia antzokian)

27- Markelife: "Plumas Celestiales"



ARRASATEKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aste gazte

"Gazteriaren helburu nagusiak aberastasuna eta fama dira"

Matilde Fernandez
Ministraria



deek antolatuta. Laguntza ingurunean, astialdi eta marginazio heziketan lan egiten dutenei zuzenduta. Urriaren 2tik abenduaren 19ra arte, asteartero 2 ordu. Prezioa: 3.000 pta. Donostian.

Jaialdia

• "Gipuzkoa-90" III Akordeo Jaialdia. Arrasaten, Abenduak 6,7 eta 8. "Gipuzkoa Akordeo Lehiaketan" parte hartzeko adina mailarik ez duten akordeo-joleentzat zuzendua. Lau maila, adinaren arabera. parte hartu dezakete indibidualak nahiz bikoteek. Sariak: Partaide guztiek diploma izango dute, brontzeko, zilarrezko edo urrezko domina batekin batera. Izena emateko epea: urriaren 10era arte.

Lehiaketak

• "La URSS insólita" Argazki-Lehiaketa. Partehartzaile bakoitzak, gehie-

nez, 5 argazki bidal ditzake. Neurriak: 30x40. Sariak: 1. Errusiar bidaia. 2. Errusiarre ikasteko ikusentzuzko ikastaroa. 3. Argazki-makina. 4. Errusiar teontzia. 5. Errusiar diska-sorta. Lanak aurkezteko epea: urriaren 5era arte.

• Natura zaintzeko "Dr. Felix Rodriguez de la Fuente" Saria: "Zure Komunitate Autonomoko landare-belartegi onenentzako saria". OHO, BBB, UBI eta LHko ikasleentzat. Sari interesgarriak. Lanak aurkezteko epea: Abenduaren 15a baino lehen.

• "Searus" XII Poesia-Lehiaketa. Gai libre. Lanak, gehienez, 200 bertsoz osatuak izan behar dira. Sariak: 1. 100.000 pta. eta plaka; 2. 25.000 eta plaka. Lanak aurkezteko epea: urriaren 24a baino lehen.

Bekak

• 90-91 ikasturtea, urrutiko irakaskuntza informati-

ka arloan Master-Diploma lortzeko bekak (Enpresa-Informatika, Analista Informatikoa, Wordstar edo Wordperfect, MS_DOS, Basic programazioa, Cobol program., Lotuc eta PC-Tools, Operatzaile informatikoa, Kontabilitatea eta Ordenadore bidezko fakturazioa, etab.) Baldintzak: gutxienez, BBB edo LH-ko ikasketak (edo baliokideak) burutuak izan. Epea: azaroak 30.

* 90-91 ikasturtean, urrutiko irakaskuntza enpresa Zientzietan Master-Diploma lortzeko eta Kontabilitate ikasteko 200 beka. Baldintzak: BBB, LH-ko ikasketak (edo baliokideak) burutuak izan. Epea: azaroak 30.

Informazio gehiago:
Gazte Zerbitzuan,



77 00 65

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

Lua
gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 · ARRASATE

ALTUNA
Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkarialak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ETXEBIZITZAK

- Etxebizitza salgai Zarautzen, hondartzatik 5 minutura. 82 m. .Tñoa 83 11 63
- Guztiz berriztatuko etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, hornitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tñoa 79 49 49
- Apartamentua alokatzen da Laredon. Interesatuak 793147 tñora deitu.
- Alokatzeko etxebizitza bila gabiltza. Dei egin 94-683 09 48 tñora.
- Etxebizitza salzen dut San Andresen. Zabalak, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Igoailu, berokuntza, antena parabolikoa eta hari musikalak. Interesatuak 79 51 09 tñora deitu.
- Baserrira salgai. Bergararik 2 km-ra. Interesatuak goizeko 10.00ak eta arratsaldeko 7.00ak artean deitu. Tñoa 77 00 8
- Hiru neska behar ditugu pisua osatzeko Donostian. Tñoak: 79 69 80 eta 79 50 28. 8etatik aurrera deitu.
- Irakaste taldeak alokatzeko pisua behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...). Tñoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- Donostiarra ikastera doazen hiru neska beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizitzeko. Deitu 79 50 45 Tñora. Mertxe.
- Donostian (Antiguon) ikasle pisua betetzeko neska hartuko genuke. Tñoa: 79 32 10
- Donostian pisua osatzeko neska behar dugu. Tñoa: 79 13 83
- Lokala behar dugu alokairuan (ez komertziala), bertan gure lana burutzeko. 50m² inguru. Berdin dio non eta nola dagoen. Tñoak 79 21 09 eta 79 95 83

LANA

- Neska euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tñoa: 79 76 81
- Esperientziadun neska prest Interinen lana egiteko. Tñoa: 77 04 97. Nati, 9etatik aurrera.
- Neska edo andra behar da hiru ume eta etxeko lanak egiteko. Altamiran. Tñoa: 79 65 23.
- Erretegi batean aste bukaeratan lan egiteko bi emakume euskaldun behar dira. Tñoa: 76 22 68.
- Neska euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 8etatik aurrera edo eguardian 79 66 65 Tñoan.
- Aretxabaletako Josteko Oihalar dendak esperientzia duen jostuna behar du. Tñoa: 79 80 90
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tñoa: 79 81 16.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke goizetan. Tñoa: 79 22 58

SALEROSKETAK

- Izozkailu espositorea eta "Mikra" pixu elektronikoa salgai. Tñoa: 78 04 06. Deitu goizetan.
- Violoncello berri-berria salgai. Interesatuak deitu 79 47 95 tñora 8etatik aurrera.
- Gibson Itxura duen kitarra salgai. Tñoa: 79 88 81 Jose.
- Seat Ritmo oso zaindua salgai. Probatzen uzten dut. Tñoa: 79 25 19.
- Anplifikadorea Rolan 60 Watiokoa salgai. Tñoa: 79 29 86
- Soalrium-a eta estetika aparailuak salgai. Tñoa: 75 24 66 Esther.

- Fotokoplagailua salgai. Sark SF 7400 markakoa. Tñoa: 76 62 68
- Peugeot 205 GT salgai. Bost urte eta 85.000 km. egoera onean. Deitu 77 08 95 tñora. Iunkeran hobeto.

DENETARIK

- Gela konpartitu baten ohea alokatzen da. Tñoa: 79 07 73.
- Frantsesetik Itzulpenak eta bestelako mekanografi lanak egiten ditut. Ana. Tñoa 795676
- Eralkitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tñora
- Datorren ikasturtean Madrilera Joan beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tñoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- Kalxo Gatzagako Antxon, Antxon, Antxon pirulero, bakoitza, bakoitza, bakoitza, jo ta fuego. Bagenekien jakintsuak ginela baina gure sinadura jo ta fuego da, beraz, adi egon Kalejira saioari, han ikuslegoaren artean aurkituko gaituzuelako. Elkar ezagutu arte, pare bat musu eta besarkada bat. Jo ta fuego!
- Hi Urtxintxako basurdun hori. Non hago sarturik? Orain ezkutitzen haiz, eh? Beno ba, argi gera dadila gure jana betetzeko eredia nahi dugula eta agudo! ez bait gara berriz zuen eskolan apuntatuko. Ados? Jo ta fuego!
- Birabira kalejiran Joseba eta Arrate heldu artian, handik etorriko gara kotxian barmian. Eh! Arrate eta Joseba, Goñi zuekin. Jo ta fuego!
- Txakurkumea doan ematen da. Ez da arraza garbikoa, baina oso polita da. Tñoa: 79 82 01



ARRASATEN
HILDAKOAK



ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tñoa: 77 08 15

Zer nahiago?

F. Jabier Manteka, 'Maradona'

Monte tabernako kamareroa.



- Haragia, ondo eginda ala gutxi eginda? Ondo eginda, bestela ez du ezeren gustorik.
- Erreala ala Bilbo? Bilbo, komentario barik.
- Bezeroak, emakumeak ala gizonetakoak? Nahiago emakumeak.
- Maritxu Kajoi ala Ihauteriak? Maritxu. Lanerako Ihauteriak politikak dira.
- Txikitoak ala kafea zerbitzea? Txikiteoa txikiteoa da, baina kafeak ateratzea nahiago.
- Ardo gorria ala beltza? Gorria..
- Bizarra mozteko, makina ala aitzurra? Makina elektrikoa.
- Motorra ala bizikleta? Bizikleta. Beti gustatu izan zait kirola, baina gutxi ibili ahal izan naiz.
- Tabernan lan egiteko, egunez ala gauez? Gaueko giroa hobea da eta lana egiteko ere bai.
- Bazkalostea ala afalostea? Telebistaren aurrean egoteko afalostea, baina gutxitan egoten naiz.
- Puroa ala zigarroa? Zigarroa. Tabernako lanagatik, ezin dut purorik erre.
- Dirua txekean ala eskura? Eskura.
- Tabernan musika lasaia ala mugitua? Segun eta noiz. Lasaia gustatzen zait, baina une batzuetan sobra egoten da.
- Kartetan egitea ala txanpon makinetan ibiltzea? Kartetan egitea.
- Amantala ala txalekoa? Nik amantala. Txalekoa Maritxun ez bada...
- Telefonoa ala karta? Telefonoa, baina aspaldian nahiago dut ez erabiltzea, bada ez bada.
- Mondragoetarra ala atxabaltarra? Hamaika urte daramatzat hemen, baina atxabaltarra naiz.

Zelebrequerixak

Behin plaentziar batzuk Ondarruara joan zien egun pasa eta bazkaittara-ko jarri zienian arrain-zopia eskatu zeben hasteko.

Baiña neskiak zopa-ontzixa mahira ekarri zebanian han etzeben ikusten saldia baiño. Arrain arrastoik pez.


Orduan batek esan zotsan kriadiak:

— Zu, neska, baiña seguru zare zopa honek arraiñak pe badauzkana?

— Bai hoixe. Azalian saldia euki arren, barrenian eukikoittu arraiñak pe.

Orduan kontestau zotsan plaentziar-rrak:

— Orduan mesedez ekarrizu zianuro puxkat, botatakuan aber kanpora urtetzen daben.



Ezkundu aurretuan abadiak ia dotriña ondo zekixen prenguntau zotsan Fernandoi.


— Bai jauna -Fernandok serixo asko.

— Jangoikuan legeko mandamentuan eta gogor zabitz?

— Bai jauna -berriz be.

— Jangoikoa zure aitta da?

— Hobe bai Jangoikua nere aitta balitz. Zoritxarrez langile triste bat besteik ezta.



Honezkeru hi be urtetan aurrera joango haiz -preguntau zotsan aspaldi ikusi eztako lagun batek Fernandoi.

— Bai, berrogetamabost datorren hillian.

— Berrogetamabost? Eztok pa emoten.

— Ez. Emun ezkeru enituzkek euki-ko.

Juan Martin Elexpuru

comercial
san juan

Garibal 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21 Tfnoa.797006
ARRASATE



Gizenak argalen kortza

Iturripe zaharrean, 1952

Urriaren 7a zen. Ospitale Zaharraren alde dirua ateratzeko Mondragoeko gizen eta argalen arteko futbol

partidua antolatu zen, Iturripe zaharrean. Manola eta guzti, lorak banatzeko. Lodia bata eta mehea bestea, nola ez.

Partiduari ekin aurretik, argazkia. Atzekaldean Olandixoko malda, gaurko Lagun Aroren egoitza dagoen

lekuan. Jokalariak gaur eguneko Arimazuri inguruan. Ezker aldeko etxea bota egin zuten.


Zutik gizenak. Ezkerretik hasita, Cecilio Garro "Pentxi", Felix Mata "El ruso", Ignacio Bedia "General Tablas", Francisco Gonzalez "Kino", Jose Antonio Gonzalez "Txapas", Eugenio Auzmendi "Santa Ageda", Javiel Olalde, Jose Mari Arregi "Axeri", Pedro Uranga "Kirru", Luis Balanzategi "Aizkora", Domingo Uribarren "Ante" eta Felix Landa.

Belauniko, Juanito Unzueta

"Bedoña", "Zarraoa", Severiano S.Vicente "Villarreal", Zabarte, Segundo Sanz, Mariano Rollan, Antonio Gonzalez "Maketua", Lopez "Bomba", Victorino Egiara, Luis Arana "Cano" eta Jose Mari Ayani. Arbitroa Ignacio Juldain izan zen.


Azkenean 2-2ko emaitzaz amaitu zen partidua eta 38.000 pta. jaso.Ospitalaren alde. Biharamonean jokalaria guztiek afaria izan zuten (makailoa) Zentru Katolikoan, bakoitzak bere poltsikotik 38 pta. ordainduz.

**PUB
HAIZEA**




ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32




Hitz gezidunak

Fruitu arbola Ostaba ... yankee-en sinboloa	*			Ale landare *	Ipotx
Bizk. Hura (her.) Ezak					
Eta		Ala	*		
Distira		Ardotegiak	*		
				Janko egyptiarra Einsteinioa	*
Zero	Lili			Odolean	
Indiako ibaia	Etxe mota			*	
		(errep.) Euli mota Germanioa			Bokala Bizkaiko herria
Gaizto Izkutatu				Galdegia Lizarraldeko ibaia	
			Gai Zakurra		
Alaia	Musika nota Zelaia	Gari Berotu		Kontsonante Zuketan	
				Kontsonante errepikatua Ardi, hitz elkar.	
Bokala	Bizk. Iratze Mangansoa			Urrea Uranioa	Irdioa
*			*		
			Roentgen		
Odolgiro				Jatorri atzizkia	

Soluzioak

R	V	L	=	R	E	K	N	V	
I	K	U	R	V	R	V	M	U	Z
-	U	V	=	R	I	V	V	*	
Z	Z	=	R	E	R	G	E	R	V
T	I	G	I	G	I	E	R	-	
I	V	K	E	K	E	R	D	E	G
R	I	V	N	G	E	R	O	N	O
V	A	S	E	T	S	E	O	D	I
H	R	H	O	R	E	L	O	R	E
.	V	A	D	V	D	V	I	S	T
O	V	G	O	P	V	L	V	L	V
N	V	Z	V	K	V	V	Z	V	Z
I	R	V							
N	L	V							
-	G	M



ENBIDOtik hartuta, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

H ik esanixok Sarabiari neuk esan dotela plantilan sartzeko, hemen edo gura dauen lekuan, gero esplikatuko dotsatela

Berandutxo zen funtzionariak euliaren hegaldiari berriro ere jarraitzeari ekin zionean. Eullak, bere aldetik, behaketaren objetua zela bailekien, arreta osoa jarri zion birbilketa programatuari, zaratarik apenas sortu gabe, ondotxo bait zekien euli arrunt-arrunta izanik, nabarmentzeko modu anitzen artean zurrunbiloarena ez zela onena, funtzionariaren inguruko zirimola gero eta zabalago, gero eta dotoreagoak ez bezala. Euliaren harat-honat amaigabeak berak orain zegoen mailara heltzeko beste funtzionarien inguruetan egin behar izan zituenak zekarzkion gogora, antz urrutia agian baina nabarmena, bere buruari aitortu nahi ez bazion ere. Berak ere zarata handirik gabe marrazturiko birbilketak, eta apika poz gutxiago eta larrialdi gehiagorekin eginak, baina dizdira handiagoz, dizdira hitza egokia bazen bulego publikoetako erpinerako igoeran eta han goian bertan lorturikoak izendatzeko.

Gero, sargoriari aurre eginez, leihora hurbildu, brist-braust zabaldu eta besoa, eskuturra eta eskuaren hiruzpalau mugimenduz eulia irten erazi zuen. Kanpoan, zuhaitzak kulunkatzen zituen haize epelak, urrunago azken laino doratuak arratsaren hondoan gordetzen ziren bitartean.

Mahaira itzuliz, bospasei botoiren arteko bat sakatu eta aulki birakari-ondulatorioaren mekanismoari esker ezkeraldeko ukondoan eroso etzanik

- Bai, jauna?

entzun arte itxoin eta ia une berean agindu

- Datorrela Carranza,

segiduan erdi serio erdi irifartsu agertu zena, atea bamekalderuntz bultzatu, sartu eta bizkarra emanez, maratila berriro ere itxi, inolako zaratarik ez ateratzeko moduko kontu eta arretaz, zerrailak ixterakoan egin ohi duten kilik nimino eta ekidinezina salbu, segiduan bira eman eta entzun:

- Eskura daukak C nomina?

eta erantzun

- Eskura eskura ez, baina bost minutu barru hemen edukitzeko moduan bai; baxu ikusten haut, zer daukak? eta hiru minutu baino lehen itzuli, urdina baino zabala den orrialde batez, zeinaren gainean funtzionariak, gogo handirik gabe, begirada goitik behera igaro zuen gero zero—sapaira igo, haruntzago jaiki nahi balu bezala, gorago, urutiago, eta txikituz joan gorbata eta eguneroko itxura galtzeraino eta abioi urrutienaren tamainako zikin txikitxo bihurtu, euli tamainakoa gutxi gorabehera, eta gero puntu txikiagoa, eta azkenean Carranza lagun eta lankide finarengana zuzendu, eta honek problemarik ote zuen galdetu dionean, bere burua erantzuten entzutea.

- Ez, esanixok Esperantzari bixar Lindberg andereñoa etorriko dala lanpostu librea dalata, Langilego Sailera bialdu daixela eta han Sarabiakin egoteko. Hik esaiok Sarabiari neuk esan dotela plantilan sartzeko, hemen edo gura dauen lekuan, gero esplikatuko dotsatela.

Augusto Monterroso
Cuentos, Alianza; madrid, 1986
Itzulpena: J.I.

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizenziatua Arrasate

✓ Joan den asteburu luzean, 20tik 23ra bitartean, Bartzelonan egon ginen, Herri Telebisten V.Nazioarteko Ihardunaldietan, besteengandik ikusi eta ikasteko asmoz. Hona hemen hango esperientziatik ateratako zertzelada hauek:

- Ponentzia mailan, mahaia osatu zutenak Katalunia, Espainia, Euskadi, Frantzia, Belgika, Suedia, Alemania, Quebec eta Ekuadorko espezialistak izan ziren. Salbuespenak salbu, maila nahiko eskasa.
- Euskaldunon ordezkariak Telesko, Plentzia Telebista, Gasteizko Ikusentzunezko Eskola eta ATBk osatu zuten.
- Gauzarik positiboena, pasabide eta hitzaldi tarteetan egindako harremanak. Helbide eta informazioaren trukatzeko aberasgarria.
- Negatiboaren aldean, desorduak, antolaketa eskasa eta besteek ermandako bideoak ganoraz ezin ikusi izana.
- Argi gelditu zen Estatu mailako herri telebisten jatorri desberdina, Hasierako gehienak kultur elkarteek eta udalek sortutakoak badira ere, (Kataluniaren kasua batipat), geroz eta gehiago dira enpresa mistoak edo erabat pribatuak direnak (Andaluzian batez ere).
- Cardedeu, Reus eta Sabadellgo telebistak bisitatu genituen. Cardedeu (Katalunian orain hamar urte sortu zen lehen herri TBa), alkateak katalanez egin zigun agurra, itzultzaileak ingelesera itzultzen zuten bitartean. Hori zela eta, espainiarrek jaiki eta alde egin zuten. Azkenean, gonbidatuekin txarto ez gelditzearen, alkate gizajoak gaztelaniaz irakurri behar izan zuten agurra, irakurriaz batera itzuliz.
- Batzuk berebiziko interesa erakutsi zuten Espainiako Herri Telebisten Federazioa antolatzeko, PSOEko jendeak gehienbat. Partidu horretako alkate, zinegotzi eta irakasle hizlari-abokatuak egon ziren, bilerak zuzendu nahian. Ahalegin bereziak egin zituzten sortu nahi zen federazioa udal administrazio espainiarrarekin lotzeko, jatorri pribatuko telebistak baztertzeko, gauza bera andaluzistak, komunistak eta, alboratuz.
- Cardedeuko telebistak 50 bat langile dauzka, eta bere hamar urteko historian inork ez du xemeikorik ere kobratu. Ez dute publizitaterik egiten, laster egitekotan diren arren. Duela 10 urte bezain txiki izaten segitzen du, berriztuago hori bai, Cardedeuko Jubilatuen Etxeko etxabehean.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

BOTEREAREN LOREAK

Otto Premingerrek zuzendua. Bizitzak dituen alde ona eta txarra azaltzen dira, lehen-dakariak Estatuko idazkaritzat liberal eztatadatu bat izendatzen duenean. Larunbatean 22.15etan ETB-1ean. Henry Fonda protagonista nagusia.

EGUBERRI ON LAWRENCE JAUNA

1942. urte inguruan Yanoi kapitaina gizon zuzen eta zorrotza da eta berarentzat kultura eta ideal japoniarrak bere bizitzan lehentasuna daukate. Yonoi agintari nagusia da eta bere agindupean Hara sarjentu basatia dago. Ostegunean 22.00etan ETB-2an Magima Ostimak zuzendutako filmea.


SQUARE DANCE

Texasen bizi den Gemma izeneko neskatoren istorioa da filmea. Umetan bere amak utzi egin zuen eta bere aita baserritarrarekin bizi da. Bere amets guztiak errealitate bihurtzeko asmoz etxea uzten du. Zuzendaria: Daniel Petrie. Ostira-lean ETB-2an 22.00etan.

Bideoak

LURRALDE TXARRAK

James Deanen miresle den gazte psikopata baten istorioa dugu "Lurralde Txarrak" filmea. Heroetzat hartutakoaren justizia arauari lotzen zaie gaztea. Ospea, entzutea...nahi ditu lortu, baina heriotza bilatu ere. Bere "jolasa" erabat arrisksua da; balak egiazkoak dira, benetako odola.... Filmearen fotografia bikainak eta interpretazio ezin hobea dira.



Ostadar irratia

OSTIRALA
3.30 eta 8.30. **Errota-zahar** (Ipuinak)
4 eta 8.30. **Batutakin** (Musika klasikoa)

ASTEAZKENA
4 eta 8. **Xiru-liru-li** (Haur kantak)

OSTEGUNA
1 eta 8. **Irratia-gelan** (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM

PROGRAMAZIOA

1 ASTELEHENA

- 19.00 Teletestua, era guztiarako abisu eta informazioarekin
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Mondrasport Beñardo Kortabariak aurkeztua
- 20.40 Erreportaiak: Agerreko Garaixea Bergaran eta Arrasateko Udala enpresa.
- 20.45 Berriak (errepikaldia)

2 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Mondrasport (bezperakoa)
- 12.40 Erreportaiak: (Bezperakoa)

3 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu mahaingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Maritxu Kajoi. Berriak (errepikaldia)

4 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)

5 OSTIRALA


- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak Begonia Garaik aurkeztua
- 20.20 Erretratoa, J.R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Ixabel Zubia
- 20.50 Musikantoi, Programa berezia: Bad Manners
- 21.30 Berriak (errepikaldia)

6 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Erretratoa (bezperakoa)
- 12.50 Musikantoi (bezperakoa)



Televisió Cardedeukoek erakusketak txikia antolatu zuten hasieran erabili zituzten tresnak erakusteko. Udalak egindako ikerketaren arabera, audientziaren %63a lortzen dute emititzen dutenean. Hala ere, ez da udalarena, kultur elkarte batek sortu bait zuen. Udalak dirulaguntzak emanez hartzen du parte. Argazkian ezkerretik hasita **Andoni Urzelai** (ATB), Cardedeuko langile bat inork ez du ezer kobratzen), **Jose Felix Diaz de Tuesta**, Sorkunde Ortuondo eta **Anton Aranburu**, biak **Plentzia Telebistakoak**.



Oso interesgarria izan zen Mondragoeko harresiaz egin zen *Zenbat buru hainbat aburu* mahaingurua. Bertan **Luis Mari Mujika** izan genuen, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Gaur *Arrasate* izenaz ezagutzen dena hasieran *Arrasate* izan zitekeen posibilitateaz galdetzerakoan, baietz esan zuten, *Arresate* (*H*)arresi-ate tik etor daiteke

Cardedeuk hamar mila bizilagun baino gutxiago ditu. Bertan egin zuten, orain hamar urte Kataluniako lehen herri teledista. Bartzelonan egon diren Herri Teledisten V. Nazioarteko ihardunaldieta-ko partaideak hara joan ziren bisitan eta bertako udalak ondi etorria antolatu. Alkateak katalaneraz irakurri zuen ongi etorria, itzultzaile batek ingelesera itzultzen zuen bitartean. Hori ikusita, ordezkari espainiarrak irten egin ziren aretotik. Azkenean alkateak (argazkian zuriz jantzita, irakurtzen) gaztelaraz erre-pikatu behar izan zuen dena.



SUKALDIAK



Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

Sukaide eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Erantzun gogorrak ematea ebitatu, ez bait duzu ezer lortuko jarrera horrekin. Biguna izan ingurukoekin, denak zeure erara erabili nahi izatea alperrikakoa izango da eta.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Ardurak nagusituko zaizkizu aste honetan, arazo personal hori dela eta, nahastuta eta noraezan ibiliko zarela. Ingurukoak ez mintzen saiatu behintzat Leo.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Urduri ibiliko zara datozen egunetan. Gauzak ondo joango dira, baina ez zuk nahi bezala. Datozen moduan onartze horrek zeure onetik aterako zaitu azkenean. Nekea sentituko duzu batez ere.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Lan asko baino hobe izango duzu egindakoa ondo eginga izatea, datozen egunetan burua nahastuta edukitzeko joera izango bait duzu. Egonarri pixka bat izan lagunekin.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Garbi ikusten ez duzun gairen bat aurkezten badizute ez egin jaramonik, denbora galtzea izango bait da. Nahiko nahastuta ibiliko zara emozionalki, aproposena lasaitasuna lortzen saiatzea izango da.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Ikaslea bazara zure jakinduria sendotzeko momentu aproposa. Langilea bazara berriz, kontuz ibili ezen ezbeharren bat gertatzea suerta liteke. Mundua goitik behera datorrela ikusten baduzu ere, ez eziabaidatu inorekin.



GEMINI

Malatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Etsipenean ez erortzeko zeneukan indarra ahaltsua gerta liteke. Ez eman amorerik ezertan eta goiari eusten saiatu, behin zuloan sartuz gero nekeza da eta ateratzea.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Umore gorabehera ugari izango duzu aste honetan. Zeu ere harrututa egongo zara barre egitetik negarrari ematera eta lasaitasunetik urduritasunera emango dituzun aldaketekin. Saiatu egoera menperatzen.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Egonezina izango duzu eta denak arduratuko zaitu. Ez sartu burubelari eskaintako edozein lanetan, zuhurra izan. Laguna zure beharrean izango duzu.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Zentzuz jokatzea izango da printzipalena datozen egunetan. Alperkena eta umore txarra kaltegarriak izan litezke Cancer.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ezertarako gogo barik eta haserretuta egoitea gerta liteke. Astroen eragina izango da, baina zentzuz jokatzuz gero, arazoak ebitatuko dituzu. Krisialditxo bat pasako duzu lanean, baina lantokiko giroa lagungarri izango zaitu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Edozertara moldatzeko gaitasuna daukazu eta honek zeurekoikeriatan ez erortzeko ahalmena emango dizu. Zure ahalegin guztiak ingurunearen onerako izango dira.



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- Fresatzeko makinak
- Zenbakizko kontrola
- Mekanizazio-zentroak
- Tornuak
- Artezko makinak, etab.

Zalditze kalea 10, ARRASATE
Tfnokak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Golain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA




CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina

Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA



Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71